

COVID-19 dela eta hartutako neurriak

Atzo arratsaldean UPV/EHUko Administrazioak ez ohiko bilera informatibo batetara deitu zituen sindikatu guztiak. Bertan, unibertsitateak COVID-19aren pandemiaren ondorioz Eusko Jaurlaritzak martxoaren 27ra arte dozentzia presentziala bertan behera uztearen ondorioz AZP zein IRI mailan hartuko diren neurriak azaldu zizkiguten EHUKo Gerenteak eta IRIen arloko Errektoreordeak.

IRlei dagokienez, honako esteka honetan kontsultza ditzakezue erabakiak:

<https://www.ehu.eus/eu/covid-19/ebazpenak/iip>. Erabakia bera, hemen:

https://www.ehu.eus/documents/10136/14189350/eusk_Resoluci%C3%B3n+PDI+coronavirus+%282020.03.12%29.pdf/45f69ccf-4b97-ee7c-1b03-493ff6354140

AZPri dagokionez, honako esteka honetan kontsulta ditzakezue erabakiak:

<https://www.ehu.eus/eu/covid-19/ebazpenak/azp>. Erabakia bera, hemen:

<https://www.ehu.eus/documents/10136/14189350/AZPrako+ezohiko+neurriak+%282020.03.12%29.pdf/4179cf29-8c12-2de2-a5ce-bcd035d0c730>.

Administrazioak malgutsaunez jokatu duela adierazi zuen, langileok erantzukizunez jokatu dugulakoan.

LABek ontzat jo zituen hartutako erabakiak.

Bestalde, EHUKo agintariei lanean jarraitu beharko dugunoi behar besteko informazioa eman eta bide batez, lanean hartu beharreko prebentzio neurriak martxan jartzeko eskaera luzatu genien, denon osasun zaindaz eta Coronabirusari hesia jar diezaiogun. Horretarako, martxan jarritako Krisi Batzordean Prebentzio Zerbitzuko Osasun arloa egotea komenigarri ikusten dugula ere adierazi genien.

EHUKo LABekook, gure aldetik, langile guztiei arduraz jokatzeari, eta norberaren lanpostuari dagozkion prebentzio neurriei gain, neurri orokorrak betetzea eskatu behar dizuegu: Eskuak sarri garbitu (ura eta xaboiarekin); eztulka edo doministikuka gabiltzanean ahoa eta sudurra estaltzea beso edota zapi batekin; begiak, sudurra eta ahoa ez ikutzea; segurtasuneko distantzia gordetzea (metro bat gutxienez); lentilak ez erabiltzea; lanerako espazio eta tresnak desinfektatzeko eskaera egitea; eta sintomatologia izanez gero, laneko ordutegian **Prebentzio Zerbitzuarekin** (osasun arloa: <https://www.ehu.eus/es/web/prebentzio-zerbitzua/telefono-zenbakiak>) edo **Mutuarekin** jarri eta laneko ordutegitik kanpo martxan jarritako **harremanetarako telefonora deitu (900 20 30 50)** edo **osasun etxearekin** harremanetan jarri. Langile bereziki kalteberak direnak ere (emakume haurdunak eta edoskitzean ari direnak, patologia larriren bat dutenak -kardiobaskularra, birikietakoa edo giltzurrunetakoa-, diabetesa, pertsona immunodeprimituak...) Prebentzio Zerbitzuarekin jarri beharko dira harremanetan.

Informazio eguneratua honako esteka biotan eskuratu dezakegu:

- UPV/EHUkoa: <https://www.ehu.eus/eu/covid-19>
- Eusko Jaurlaritzarena: <http://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

Ondo izan eta segi osasuntsu!